



Siranush SARGSYAN | AFP



IKUSMIRA

EXODOAREN BIKTIMEN ETA BIKTIMARIOEN TRUKEA

Nagorno-Karabakhen bizi ziren 12.000 inguru armeniarrek guztia utzi dute, eta Armeniara bidean dira. 2020an Azerbaijan «44 Egunetako Gerran» gailendu zenetik, inguratuta bizi ziren. Azken hilabeteen Latxi-neko pasabidea itxi zuen Bakuk, lurraldea guztiz blokeatuz. Aurreko astean azkenengo erasoari ekin zion, eta Karabakhekoek, inolako laguntzarik gabe, errenditu egin ziren.

Sobietar Batasunak porrot egin zuenean, 90. hamarkadako gerran, armeniarrek irabazi zuten, eta armeniarrek gehiengoa ziren lurraldetik eta ingurutik 500.000-miloi bat azeriak Azerbaijanera bidali zituzten.

Exodo baten buelta, mendekua. Armeniarrak eta azeriak antzinatik bizi izan dira elkarrekin eskualde horretan. Nazio Estatuaren jaiotza arte, eta batez ere, Stalinekin Kaukason inposatu zituen populazio-mugimenduen eta muga ezartze xelebreen ondorioak azaleratzen hasi ziren arte, hain justu. Orain, ezin dute bata bestearen ondoan bizi. **Dabid LAZKANOITURBURU**